

113. ALDIZKARIA - 2012ko ekainaren 14a

UHARTE ARAKIL

Lizentziak emateko eta hirigintzako jarduketak egiteko tasak arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onespena

Uharte Arakilgo Udalak, 2012ko urtarrilaren 26an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Lizentziak emateko eta hirigintzako jarduketak egiteko tasak arautzen dituen udal ordenantza, 2012ko 44. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen, martxoaren 2an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraituz, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betikoz onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Uharte Arakilen, 2012ko maiatzaren 22an.-Alkatea, Javier Rodríguez Astiz.

ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMATEKO ETA HIRIGINTZAKO JARDUKETAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Zergapeko egintza hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematean datza, etxegintzaren eta lurzoruaren erabileraren arloko egintzak indarra duten hirigintza eta eraikuntza araei egokitu ahal izateko.

3. artikulua. Tasa hauei loturiko udal ekintza hirigintzako jarduketa hauetan gauzatzen da:

-Partikularrek aurkeztu antolamenduko plan partzial edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, aurrerapen azterlanak, antolamenduko planen aurreproiektuak eta birzatiketak tramitatzea edo hirigintzako agiriak aldatzea.

-Partikularrek aurkeztutako urbanizazio proiektuak tramitatzea.

-Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 189. artikuluan zehaztutakoak.

Aipatzearren, ondokoak dira:

-Eraikin eta instalazio berriak altxatzeko obrak.

-Eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.

-Eraikin eta instalazioen egitura edo kanpoko itxura aldatu edo berritzeko obrak.

-Eraikinen barneko banaketa aldatzen duten obrak, edozein erabilera emanda ere.

-Behin-behineko obra eta erabilerak.

-Hirigintzako lurzatiketak eta landa finken banaketa eta zatiketak.

-Lur-mugimenduak, hala nola zelaitu, lurrerauzi, hondeatu eta betetzeko lanak, salbu eta lan horiek zehaztu eta programatutako obrak badira onetsita den urbanizazio edo eraikuntza proiektu baten barrenean.

-Eraikinak eta instalazioak lehenbiziko aldiz erabili edo okupatzea eta haien erabilera aldatzea.

-Eraikinak botatzea, salbu eta berehalako aurre-egoera deklaratzaren denean.

-Zorupari eragiten dioten instalazioak.

-Arbolak eta zuhaixkak botatzea, baldin eta zuhaitz-masa, basogune, arboladi edo parke badira, salbu eta nekazaritzaren arloko legeek baimendutako lanak direnean.

-Eremu publikotik ikusten diren kartelak paratzea, betiere lokal itxietan ez badaude.

- Presa, baltsa eta defentsa-obrak egin eta ubide publikoak zuzentzea, interes orokorreko obra publikoak ez badira.
- Agregakinak ateratzea eta harrobiak ustiatzea, jabari publikoko lurretan egin eta administrazioaren kontzesioa behar izanda ere.
- Finkak ixtea.

ORDAINDU BEHARRA

4. artikulua. Obra lizentziak emateko tasak ordaintzetik salbuetsita egonen dira:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta bere helburuak betetzeko sortzen dituen entitate juridikoak.
 2. Udalerrien mankomunitateak eta batasunak, betiere Uharte Arakilgo Udala kide bada, baita helburuak betetzeko sortzen dituzten entitate juridikoak ere.
5. artikulua. 1. Zergak ordaindu beharra lizentzia ematen den unean hasten da. Ez da tasarik sortuko interesdunak eskabideari uko egiten badio lizentzia emateko udal erabakia hartu baino lehen.
2. Plan partzialak edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, birzaketak eta urbanizazio proiektuak tramitatuz gero, haiek ebatzi edo behin betikoz onesten diren unean sortuko da ordaindu beharra.

SUBJEKTU PASIBOA

6. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik izan ez, baina unitate ekonomiko edo ondare berezia diren entitateak, baldin egindako hirigintzako jarduketengatik edo emandako lizentziengandik eragina edo onura hartzen badute.

Eraikitzaileak eta obra kontratistak zergadunaren ordezkioak izanen dira, zoruari eta hiri-antolamenduari buruzko arauetan hirigintzako lizentziak emateko aurreikusi diren tasetan.

TARIFAK ETA KARGA-TASAK

7. artikulua. Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

KUDEAKETA ARAUAK

8. artikulua. Planeamendurako espedienteak eta lizentziak tramitatzeko, udal teknikariek adostasun txostena eman ondoan egiten da haien likidazioa. Subjektu pasiboaren izena, tasa zer kontzeptutan likidatzen den, tarifa eta zenbatekoa adieraziko dira likidazio horretan.

9. artikulua. Urbanizazio proiektuak tramitatzeko, proiektua onesterakoan egiten da tasen likidazioa.

10. artikulua. Lizentziak emateagatik ordaindu beharreko tasak behin-behineko likidatuko dira obraren kostuaren arabera.

Obraren kostua zehaztuko da hura gauzatzeko aurrekontuaren arabera, ordainsariak eta industria mozkina salbu.

Barne urbanizaziorako proiektuaren zenbatekoa tasaren zerga-oinarriaren elementu bat da. Horretarako, interesdunek, barne urbanizaziorako proiektua aurkeztu beharko dute, aurrekontu eguneratuarekin batera.

11. artikulua. Obra burutu edo behin-behineko onartu eta hurrengo hilabetean, inguruabar hori ziurtatzen duen aitorpena aurkeztuko da, obraren zuzendariak emandako ziurtagiriarekin batera, behar den elkargo profesionalak ikus-onetsia, bideragarria bada, zeinak obren kostu osoa ziurtatuko baitu.

Aipatutako kostua udal teknikariek aztertuko dute eta errealitateari ez zaiola egokitzen ikusten badute, egokitzen saiatuko dira, eta behin betiko likidazioa egiten da, obren kostu erreal eta benetakoa oinarritzat hartuz.

Partikularraren aldeko diferentziarik izanez gero, itzuli egiten zaio; Udalaren aldekoa bada, berriz, hura ordaintzeko hilabeteko epea emanen zaio. Ordaintzen ez badu, premiamendu bidez kobratuko da, bertzerik gabe.

12. artikulua. Tasen likidazioa onetsi eta gero, interesdunari jakinaraziko zaio, erregelamenduzko epean tasak ordain ditzan.

TARIFEN ERANSKINA

1. epigrafea.-Antolamendurako plan partzial edo berezien tramitazioa.

-Espedientea tramitatu eta ebazteko tasak plan bakoitzean sartutako lurzorua zabaleraren arabera likidatuko dira, hain zuzen ere 0,06 euro/m².

2. epigrafea.-Plan partzial edo berezien aldaketak eta xehetasun azterlanak tramitatzea.

-Aplikatu beharreko tarifak 1. epigrafean zehaztutakoen %50 izanen dira.

3. epigrafea.-Birzaketaren tramitazioa.

3.1. Birzaitu edo banantzeko espediente bakoitza tramitatu eta ebazteko tasak aprobetxamendu osotik ateratzen den

azalera edo bolumen eraikigarriaren arabera likidatuko dira, tarifa hauei jarraikiz:

-m³ eraikigarri bakoitzeko: 0,06.

-m² eraikigarri bakoitzeko: 0,18.

3.2. Birzatiketen aldaketak tramitatzea: tarifak 3.1 epigrafean ezarritakoen %50 izanen dira.

4. epigrafea.-Plan orokorreko aldaketa puntualak tramitatzea.

4.1. Plan orokorreko aldaketa puntualak tramitatu eta ebazteko tasak 54 euro izanen dira, eta prentsako gastuak gehituko zaizkie.

4.2. Lurzorua birkalifikatzeko espediente bakoitza tramitatu eta ebazteagatik, zenbateko azalera jasotzen den espedientean, haren arabera egingen da tasen likidazioa, tarifa hauei jarraituz:

-Oihaneko lurzorua izatetik produktibitate ertaineko lurzorua izatera: 0,025 euro/m².

-Oihaneko lurzorua izatetik lurzoru urbanizagarri izatera: 1,50 euro/m².

-Produktibitate ertaineko lurzorua izatetik lurzoru urbanizagarri izatera: 1 euro/m².

4.1 epigrafean ezarritako tasak gehituko zaizkie.

5. epigrafea.-Eskatzaileek egindako urbanizazio proiektuak tramitatzea.

-Tasak proiektuaren zenbatekoaren arabera likidatuko dira, eta karga-tasa %1,5 izanen da.

6. epigrafea.-Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko legearen 189. artikulua babesean emandako lizentziak.

6.1. Lurzatiketak egiteko lizentziak: lurzati lizentzia bakoitza tramitatu eta ebazteko tasak azalaren arabera likidatuko dira, hain zuzen 0,06 euro/m².

6.2. Eraiste, eraikitze, berritze, instalazio, zuzaitze, errotulu paratze eta oro har lizentzia behar duten gainerako obretarako lizentziak, betiere aurreko ataletan ez badaude: salbuetsirik.

7. epigrafea.-Lizentziak, eraikinak edo instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeagatik.

-Eraikinetarako lizentzia, etxebizitza bakoitzeko: 40,00 euro.

-Familia bakarreko etxebizitzarako lizentzia: 60,00 euro.

8. epigrafea.-Zerbitzu teknikoak ematea.

8.1. Alde batek eskatuta, hirigintzako txostenak emateko tasen likidazioa egiteko, txostena prestatzeko behar diren orduak hartuko dira kontuan, hain zuzen 33,00 euro/ordua.

8.2. Alde batek eskatuta, Udaleko arkitektoaren kontsultei dagozkien tasen likidazioa egiteko, kontsulta horretan sartutako orduak hartuko dira kontuan, hain zuzen 33,00 euro/ordua; betiere, ez dute zuzenean zerikusia izanen aurreko epigrafeetan zehaztutako tramitazioekin.

9. epigrafea.-Gutxieneko eskubideak.

Aurreko epigrafeengatik ordaindu behar diren tasak gutxieneko zenbateko haietatik behekoak badira, honako hauek ordaindu beharko dira:

-Plan partzialak edo bereziak tramitatzea: 400,00 euro.

-Plan partzial edo berezietan eta xehetasun azterlanetan aldaketak tramitatzea: 200,00 euro.

-Plan Orokorreko aldaketa puntualak: 54,00 euro eta prentsako gastuak.

-Lurzatiketak (lurzati bakoitzeko): 48,00 euro.

-Banantzeak (lurzati bakoitzeko): 48,00 euro.

-Birezatiketak: 400,00 euro.

-Hirigintzako txostenak lizatzea: 33,00 euro.

Iragarkiaren kodea: L1207868